

2023

# Etxepare Euskal Institutua

URTEKO TXOSTENA  
MEMORIA ANUAL



# Etxepare Euskal Institutua

Urteko txostena / Memoria anual  
2023

Euska  
Kultu  
Mund



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA

ra.  
ra.  
lura.

# Aurkibidea

ÍNDICE



- 01 Hitzaurrea 6**  
Prólogo
- 02 Literatura eta itzulpengintza 12**  
Literatura y traducción
- 03 Arte eszenikoak 24**  
Artes escénicas
- 04 Zinema eta ikus-entzunezkoak 34**  
Cine y audiovisuales
- 05 Musika 42**  
Música
- 06 Arte plastikoak eta ikusizkoak 52**  
Artes plásticas y visuales
- 07 Euskal kultura 60**  
Cultura vasca
- 08 Euskal ikasketak eta euskararen sustapena 66**  
Estudios vascos y fomento del euskera
- 09 Kultur diplomazia 92**  
Diplomacia cultural
- 10 Komunikazioa eta hedapena 98**  
Comunicación y difusión
- 11 Kudeaketa eta baliabideak 108**  
Gestión y recursos

01

# Hitzaurrea

PRÓLOGO

Argazkia: Daniels Joffe. Unsplash



# Hitzaurrea

## Prólogo

Etxepare Euskal Institutua sortu zenetik bultzatu duen ahaleginik bada, hori **etengabeko hobekuntzaren** aldekoa izan da. Pandemia igarota eta ondorengo susperraldirako hartu behar izan ziren ezohiko neurriak aztertuta, 2023an normaltasunera itzuli nahi izan dugu, jarduera-ildo guztiak berreskuratuz eta horiek hobetzeko eta indartzeko asmoz.

Martxoaren 9an, institutuko Zuzendaritza Kontseiluak **2023ko Enplegu Plana** onartu zuen. Plan horrek bi lanposturen funtzioak eta ezaugarriak berriz definitzea, lau lanpostutarako lana egonkortzeko prozesua bideratzea -hori guztia urtean zehar kudeatu eta amaitu duguna- eta 2023ko Lan Eskaintza Publikoa egitea proposatzen zuen. Abenduan argitaratu zen LEP horrek aukera emango du lanpostu bat esleitzeko eta aldez aurretik erakundearen funtzioa behar bezala betetzeko beharrezko gisa diagnostikatuta zeuden bi lanpostu berri plantillan sartzeko.

Si hay un empeño que ha impulsado el Etxepare Euskal Institutua desde su creación, ése ha sido el de la **mejora continua**. Pasada la pandemia y revisadas las medidas extraordinarias que hubo que tomar para la recuperación posterior, en 2023 hemos querido volver a la normalidad con el deseo no sólo de recuperar todas las líneas de actuación, sino también de mejorarlas y reforzarlas.

El 9 de marzo el Consejo de Dirección del Instituto aprobó el **Plan de Empleo 2023**, que proponía la redefinición de las funciones y características de dos puestos, un proceso de estabilización laboral para cuatro puestos -todo ello gestionado y completado a lo largo del año- y la Oferta Pública de Empleo 2023. Dicha OPE, que se publicó en el mes de diciembre, permitirá la adjudicación de una plaza y la incorporación a la plantilla de dos nuevos puestos, ambos previamente diagnosticados como necesarios para el óptimo desempeño de la misión de la entidad.

---

**Irene Larraza, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria.**

Irene Larraza, Directora de Etxepare Euskal Institutua.

Argazkia: Etxepare Euskal Institutua.



Martxoan, halaber, Monika Madinabeitiak Garbiñe Iztueta ordezkatu zuen **Euskara Sustatu eta Zabaltzeko** Arloko zuzendari gisa, eta kementsu hartu zuen arlo akademikoaren eta euskararen irakaskuntza eta dibulgazioaren gidaritza. Arlo horretan, 2023an, Euskara eta Euskal Kultura irakasteko sarea indartu dugu munduko 36 unibertsitatetan, Zuricheko Unibertsitatean (Suitza) irakurletza berri bat ireki eta Edinburgoko Unibertsitateko (Eskozia) irakurletza berriz ireki dugu, pandemiac eragindako geldialdiaren ondoren. Eta nazioarteko unibertsitate-esparruan ere, Etxepare Euskal Institituak Europan eta Amerikan sortutako Euskal Ikasketen hamabi Katedretako programek arrakasta eta oihartzun handia izan dute.

Urtean zehar, gainera, **Euskara Munduan** programaren jarduera berreskuratu da. Programa horren baitan 17 herrialdetako 64 Euskal Etxetan euskararen irakaskuntza bermatu eta koordinatu dugu, eta Buenos Airesko Casa Navarran euskara irakasteko esperientzia pilotu bat sustatu dugu, Euskarabidearekin lankidetzan. Hori guztila, nazioarteko irakaskuntzako bi sareetako irakasleak prestatzeko programez gain

**Euskal kultura atzerrian sustatzeari** dagokionez, gure dirulaguntzen deialdien eskuragarritasunari eutsi diogu (mugikortasuna, itzulpengintza...), eta kualitatiboki berrikusi ditugu Euskal Leihoa: 2023an, Etxeparek 65 kultura-ekimen bultzatu ditu zuzenean nazioarteko kultura-zentro garrantzitsuetan, eta 58 lankidetza-hitzarmen sinatu ditu. Gainera, 2023an, Basque. Books. proiektuaren parte izango den eta euskarazko literaturaren zabalkundeari bultzada eman nahi dion euskal literatura itzuliaren atari berriari forma eman diogu.

**Zabal** programaren bidez, berri, Sydney eta Shanghai biurtekoetako komisarioak euskal eszena artistikoa ezagutzena gonbidatu ditugu. Eta emaitza berehala heldu da: urte amaieran Txinako Shanghaiko Biennaleak Jorge Oteizaren bost obra eta Itziar Barrioren lan bat hartu zituen. Eta Sao Pauloko (Brasil) Biennaleak Katalina Erausoren erretratua erakutsi zuen -Kutxa Fundazioaren bildumakoa-, aurreko urtean egindako bisitan Etxepareraren bitartez ezagutu zutena.

Institutuaren **kultura-diplomaziaren** arloko proiektuak Europaren, Japoniaren eta Estatu Batuen artean gauzatu dira 2023an. Batetik, #FlenBasque Euskadi-Flandria kultura-trukerako proiektua elikatzen jarraitu dugu. Proiektu horren esparruan, bi jatorrietako kolektiboen eta sortzaileen diziplina anitzeko bederatzeko proiektu garatu dira, Etxeparek eta Flanders Art Institutek bultzatutako topaketan ondorioz. Bestetik, Estatuko beste kultura-institutuekin batera jarduerak sustatzen jarraitu dugu, baita EUNICen esparruan ere (Kulturaren Institutu Nazionalen Europako Elkartea). Berrikuntza nabarmen batekin: 2023ko apirilaz

También en marzo Monika Madinabeitia relevó a Garbiñe Iztueta en la posición de directora del área de **Promoción y Difusión del Euskera**, tomando con brío las riendas del área académica y de enseñanza y divulgación del euskera. En ese campo, a lo largo de 2023 se ha reforzado la red de enseñanza de Euskera y Cultura Vasca hasta en 36 universidades del mundo, con la inauguración de un nuevo lectorado en la Universidad de Zurich (Suiza) y la reapertura del lectorado de la Universidad de Edimburgo (Escocia) tras un parón causado por la pandemia. Y también en el ámbito universitario internacional, los programas de las doce Cátedras de Estudios Vascos creadas por Etxepare Euskal Institutua en Europa y América se han llevado a cabo con gran éxito y excelente repercusión.

A lo largo del año se ha recuperado además la actividad del programa de **Euskara Munduan**, que ha garantizado y coordinado la enseñanza del euskera en 64 Euskal Etxeas de 17 países, además de incorporar una experiencia piloto de enseñanza del euskera en la Casa Navarra de Buenos Aires, en colaboración con Euskarabidea. Todo ello además de los programas para la formación del profesorado de ambas redes de enseñanza internacional.

En cuanto a la **promoción de la cultura vasca en el exterior**, hemos mantenido la accesibilidad de nuestras convocatorias de subvenciones (movilidad, traducción...) y hemos revisado cualitativamente las **Ventanas Vascas**: en 2023 Etxepare ha impulsado directamente un total de 65 iniciativas culturales en centros culturales internacionales de relevancia y ha suscrito 58 convenios de colaboración. Además, en 2023 hemos dado forma al nuevo portal de muestras de literatura vasca traducida, que se integrará en el proyecto Basque. Books. y que busca dar impulso a la difusión de la literatura escrita en euskera.

Y por medio del **programa Zabal** hemos invitado a conocer la escena artística vasca a los comisarios de las bienales de Sídney y de Shanghái. Y los frutos no se han hecho esperar: a finales de año la Biennale de Shanghái incluyó 5 obras de Jorge Oteiza y una de Itziar Barrio. Y la Biennale de Sao Paulo (Brasil) mostró el retrato de Catalina de Erauso -de la colección de Kutxa Fundazioa-, que habían conocido por medio de Etxepare en su visita del año anterior.

Los proyectos en materia de **diplomacia cultural** del Instituto han pivotado en 2023 entre Europa, Japón y Estados Unidos. De un lado, hemos seguido alimentando el proyecto de intercambio cultural Euskadi-Flandes, #FlenBasque, en el marco del cual se han desarrollado nueve proyectos multidisciplinares de colectivos y creadoras/es de ambos orígenes, fruto de los encuentros previos impulsados por Etxepare y el Flanders Art Institute. De otro, hemos seguido promoviendo actividades conjuntas con los otros institutos culturales del ámbito estatal, así como en el marco de

geroztik Etxepare Euskal Institutua New Yorkeko EUNICeko klusterreko kidea da, Bruselakoaz gain.

Eta, gainera, Lehendakaritzak sustatu duen Euskadi-Japonia urteko kultura-arloaren garapenaz ere arduratu da institutua. Bertan, udazkenean Tokion ospatutako Basque Week astea kultura- eta kirol-edukiez hornitzeaz gain, urte osoan zehar zortzi kultura-ekimen sustatu ditugu Japonian, eta Euskadin kultura-sortzaile japoniarren 10 programa ekoiztea erraztu dugu, azken hori Japan Foundationekin koordinatuta.

Azkenik, **hazkunde kualitatiboarekin** eta **kultura-diplomaziarekin** batera, Etxepare Euskal Institutuaren ildo estrategikoek baditzute beste bi zeharkako ardatz: **eraldaketa digitala** eta **koordinazioa eta elkarlana**. Eremu digitalean, irakaskuntzako materialak sortzen eta online prestakuntza sustatzen inbertitzen jarraitu dugu, baita proiektuen araberako kudeaketa ezartzen ere. Marketin digitaleko gure plana garatu dugu, Basque Playlist proiektua sortu dugu eta sare sozialetan ditugun kontuen kudeaketa eleanitza ere aztertu eta birplanteatu dugu.

Eta, jakina, kultura-eragile, -sektore eta -erakundeekiko komunikazioa etengabea izan da. Koordinazioa indartu dugu Eusko Jaurlitzaren esparruan ere –Kultura Saila, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia–, eta kanpoko beste erakunde eta erakunde akademiko eta kultural batzuekin batera lan egitea bultzatzu dugu. Inoiz ez dugulako bakarka lan egiten.

2023. urtea lantaldea, proiektuak eta gogoa sendotuta itxi dugu, beraz. Eta Etxepare Euskal Institutua gure nortasuna munduan ezagutarazteko ezinbesteko erresonantzia-kutxa dela sinetsita.

Irene Larraza Aizpurua  
Zuzendaria

EUNIC, la Asociación Europea de Institutos Nacionales de Cultura. Con una novedad destacable: desde abril de 2023 el Etxepare Euskal Institutua es miembro del clúster de EUNIC de Nueva York, además del de Bruselas.

Y, además, desde el Instituto nos hemos encargado también del desarrollo del flanco cultural del año **Euskadi-Japón**, promovido por Lehendakaritza, a lo largo del cual, además de proporcionar contenidos culturales y deportivos a la Basque Week celebrada en otoño en Tokio, a lo largo del año hemos promovido ocho iniciativas culturales en Japón, y facilitado la producción de 10 programas de creadoras/es culturales japonesas/es en Euskadi, esto último en coordinación con Japan Foundation.

Finalmente, junto con el **crecimiento cualitativo y la diplomacia cultural**, las líneas estratégicas de Etxepare Euskal Institutua incluyen otros dos ejes transversales: **la transformación digital y la coordinación y el trabajo conjunto**. En el ámbito digital hemos seguido invirtiendo en la creación de materiales de enseñanza y en el fomento de la formación online, así como en la implantación de la gestión por proyectos. Hemos desarrollado nuestro plan de marketing digital, hemos creado el proyecto Basque Playlist y hemos estudiado y replanteado además la gestión multilingüe de nuestras cuentas en redes sociales.

Y por supuesto ha sido permanente la comunicación con agentes, sectores y entidades culturales. Hemos reforzado la coordinación en el marco del Gobierno Vasco -Departamento de Cultura, Secretaría General de Acción Exterior- e impulsado el trabajo conjunto con otras instituciones y organizaciones académicas y culturales del exterior. Porque nunca trabajamos en solitario.

Cerramos pues el año 2023 con el equipo, los proyectos y los ánimos reforzados. Y con la convicción de que Etxepare Euskal Institutua es una caja de resonancia imprescindible para dar a conocer nuestra identidad en el mundo.

Irene Larraza Aizpurua  
Directora

# Urtea zenbakitan

El año en cifras

**529** 

AGERPEN KOMUNIKABIDEETAN  
Apariciones en medios de comunicación

**31** 

KULTUR JARDUERA  
SARE AKADEMIKOAN  
Actividades culturales  
en la red académica

**90** 

EUSKARA IRAKASLE  
Profesores/as de euskera

 **1.191**



IKASLE  
alumnos/as

**12** 

UNIBERTSITATE KATEDRA  
Cátedras universitarias

 **33**

UNIBERTSITATETAN EUSKAL IKASKETAK  
Universidades con estudios vascos



# 74.897

ERABILTZAILE  
WWW.ETXEPARE.EUS-EN  
Usuarios en [www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)

# 74

SUSTATUTAKO  
PROIEKTU  
Proyectos  
promovidos



# 1.636

IKASLE EUSKAL ETXEETAN  
Alumnos/as en centros vascos

# 246

JARDUERA  
Actividades

# 18



HERRIALDE  
Países

# 23

LIBURU ITZULPEN LAGUNDU DIRA  
Traducciones de libros subvencionadas

# 208

ONURADUN IZAN DITUZTE  
MUGIKORTASUNERAKO  
DIRULAGUNTZEK  
Beneficiarios/as de ayudas  
a la movilidad



02

# Literatura eta itzulpengintza



LITERATURA Y TRADUCCIÓN

Argazkia: Etxepare Euskal Institutua



# Literatura eta itzulpengintza

Literatura y traducción

Euskal literatura-sorkunza ezagutzen emateko, euskal literaturaren itzulpengintza eta euskal idazleen eta hauen lanen zabalkundea sustatzen du Etxepare Euskal Institutua. Helburu horrekin egitasmo zehatzak burutzen ditugu, bai bertako kultur eragileekin elkarlanean, baita euskararen eremu geografikotik kanpoko eragileekin ere. Euskal idazleen parte hartzea kudeatzen dugu nazioarteko azoka eta jaialdi garrantzitsuenetako programa ofizialean, eta euskal erakundeak eta elkarrekin babesten ditugu nazioartean euskal literaturaren ordezkaritza lanak egin ditzaten. Nazioarteko erakundeenkiko harremanak ere estutzen ditugu, elkar truke programak sustatzeko. Bestetik, itzulpenak sustatzen ditugu dirulaguntzak emanet eta itzulpen sari bat bultzatuz. Gainera 2023an, euskal literaturaren itzulpenen nazioarteko zabalkundea sustatzeko, euskal literatura-laginen ataria sortu dugu gure mugetatik kanpoko argitaletxei, gure literaturara gerturatzeko, eta gure mugetatik kanpo itzuli eta argitaratua izan dadin baliabide eta pizgarriak eskaintzeko.

Era berean, nazioarteko azoka eta topaguneetan euskal literatura eta liburugintzaren presentzia sustatzen dugu BASQUE. BOOKS. markaren bidez, Eusko Jaurlaritzarekin eta sektoreekin elkarlanean.

Con el fin de ayudar a difundir la creación literaria vasca, Etxepare Euskal Institutua fomenta la internacionalización de obras y autores/as. Para ello, llevamos a cabo iniciativas específicas en colaboración tanto con agentes culturales vascos, como con agentes externos al ámbito geográfico del euskera. En este sentido, gestionamos la participación de escritores/as vascos/as en ferias internacionales y en los programas oficiales de los festivales más renombrados; asimismo, ofrecemos apoyo a instituciones y a asociaciones que representan la literatura vasca en el ámbito internacional. También forma parte de nuestra actividad el crear lazos con instituciones internacionales con la mirada puesta en el impulso a programas de intercambio. Por otra parte, fomentamos la traducción de obras, para lo que destinamos subvenciones, y organizamos un premio de traducción. Además, en 2023, para fomentar la difusión internacional de las traducciones de literatura vasca, hemos creado portal de muestras de literatura en euskera con el fin de acercar nuestra literatura a editoriales de fuera de nuestras fronteras y ofrecerles medios e incentivos para que ésta sea traducida y publicada.

Asimismo, impulsamos la presencia de la literatura vasca y del sector del libro en ferias y encuentros internacionales a través de la marca BASQUE. BOOKS., en colaboración con el Gobierno Vasco y el sector.

## Sortzaileen eta lanen zabalkundea sustatzea

Euskal literaturari nazioartean ikusgarritasuna emateko, Etxepare Euskal Institutua euskal idazleen parte hartza sustatzen du mundu osoko liburu azoka eta literatura jaialdi eta programazioetan.

## Fomento de la difusión de autores/as y obras

Con el fin de visibilizar la literatura vasca en el contexto internacional, Etxepare Euskal Institutua fomenta la participación de autores/as vascos/as en ferias, festivales y programaciones literarias de todo el mundo.



**Unai Elorriaga idazleak 'Iturria'**  
(‘Nosotros no ahorcamos a nadie’)  
**eleberria aurkeztu du FIL Guadalajaran.**  
El escritor Unai Elorriaga ha presentado en la FIL Guadalajara su novela ‘Iturria’ (‘Nosotros no ahorcamos a nadie’).

## Euskal leihoa nazioarteko azoka eta jaialdietan

Hainbat kultur eragilerekin adostutako akordioen bidez, 2023. urtean euskal literatura ondorengo jaialdi, programazio eta kultur guneetan egon da:



### **Hay Festival Cartagena**

Cartegena de Indias, 2023.01.26-29  
Amets Arzallus

### **LAF India**

Kerala + Delhi, 2023.02.02-05  
Beatriz Chivite

### **Gutun Zuria EUSKADI-JAPAN**

Bilbao, 2023.04.01  
Manga da ma(h)uka: EH-Japonia komikitan. Hiromi Yoshida, Koro Muro, Josevisky, Ainara Azpizazu

### **Wiersze w mieście EUNIC**

Varsovia, 2023.04.20-05.21  
Rikardo Arregi

### **Fira del Llibre de Valencia**

Valencia, 2023.04.27-05.07  
Fito Rodriguez, Mariasun Landa

### **Thessaloniki Book Fair**

Tesalonika, 2023.05.04-07  
Patxi Zubizarreta

### **Hay Festival Querétaro**

Querétaro, 2023.09.07-10  
Eider Rodriguez

### **Toronto International Festival of Authors**

Toronto, 2023.09.21-10.01  
Karmele Jaio

## Ventanas vascas en ferias y festivales internacionales

Gracias a los acuerdos alcanzados con diversos agentes culturales, en el año 2023 la literatura vasca ha estado presente en los siguientes festivales, programaciones y espacios culturales:



### **Suns Europe**

Udine, 2023.10.13-14  
Patxi Zubizarreta

### **Transpoesie FLANDRIA-EUSKADI**

Brusela, 2023.09.28-29  
Lizar Begoña

### **Festival Eñe**

Madrid, 2023.10.27-28  
Euskal Leihoa. Kirmen Uribe, Mikel Urdañarin, Rafa Ruda, Aitzole Araneta, Angel Erro, Danele Sarriugarte, Katixa Agirre, Karmele Jaio, Jon Maia, Miren Amuriza

### **1863 Residencia Literaria**

A Coruña, 2023.11.01-30  
Danele Sarriugarte

### **European Literature Night**

New York, 2023.11.02  
Kirmen Uribe

### **Miami Book Fair**

Miami, 2023.11.12-19  
Elena Odriozola

### **Literaktum**

Donostia, 2023.11.16  
Poesia(k) eta maitasuna(k).

### **FIL Guadalajara**

Gudalajara, 2023.11.29-12.04

## Nazioarteko foroetan parte hartzea

Euskal PEN Kluba, Galtzagorri Elkartea eta Euskal Irudigileak-ekin indarrean ditugun akordioen bidez euskal literatura eta ilustrazioa ordezkatuta egon dira nazioarteko hainbat sare, foto eta topagunetan. Galtzagorri Elkartea IBBY eta OEPLI sareetan hartu du parte, Euskal PEN Klubak berri PEN International sarean.

## Presencia en foros internacionales

La presencia de la literatura y la ilustración vasca ha estado garantizada en diversas redes, foros y eventos internacionales gracias a los acuerdos que tenemos con Euskal PEN Kluba (Basque PEN), Galtzagorri Elkartea y Euskal Irudigileak. Galtzagorri Elkartea ha participado en las redes IBBY y OEPLI, mientras que Euskal PEN Kluba ha hecho lo propio en la red PEN International.

### Bologna Children's Book Fair

Bologna, 2023.03.06-09  
Euskal Irudigileak

### III Seminario IBBY Iberoamericano del Libro Infantil y Juvenil

Online, 2023.03.20-21  
Galtzagorri Elkartea

### Ilustropia

Bogotá, 2023.04.16-30  
Euskal Irudigileak

### LUSTR Festival

Praga, 2023.11.21-26  
Euskal Irudigileak

### Women Writers Committee

Online, 2023.03.10-11  
Euskal PEN Kluba

### Frankfurter Buchmesse

Frankfurt, 2023.10.18-22  
Euskal Irudigileak

### FIL Guadalajara

Guadalajara, 2023.11.29-12.04  
Euskal Irudigileak

### Biennial of Illustrations Bratislava

Bratislava, 2023.10.04-12.03  
Galtzagorri Elkartea



## Mugikortasunerako dirulaguntzak: bidaia-poltsak

Etxepare Euskal Institutuak urtero bidaia-poltsak ematen dizkie euskal idazle, ilustratzaile, itzultzale eta editoreei liburuen aurkezpen, hitzaldi edo antzeko ekintzen bidez nazioarteko ekitaldietan parte har dezaten, betiere euskal kulturaren ordezkari bezala.

## Subvenciones para la movilidad: bolsas de viaje

Etxepare Euskal Institutua otorga anualmente bolsas de viaje para que escritores/as, ilustradores/as y editores/as vascos/as puedan participar en eventos internacionales presentando libros, ofreciendo conferencias o actividades similares como representantes de la cultura vasca.

### Bidaia-poltsak: literatura

	<b>Eskatutako dirulaguntzak Ayudas solicitadas</b>	<b>Emandako dirulaguntzak Ayudas otorgadas</b>	<b>Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado</b>	<b>Emandako zenbatekoa Importe otorgado</b>	<b>Aurrekontua*</b> <b>Presupuesto*</b>
2023	38	33	25.113,24 €	19.144,98 €	30.000 €
2022	25	23	15.109,27 €	11.902,23 €	20.000 €
2021	18	17	11.547 €	9.895 €	18.000 €

\*Oharra: literatura eta zineko bidaia-poltsitarako guztira bideratutako aurrekontua.

### Bolsas de viaje: literatura

\*Nota: presupuesto total destinado a bolsas de viaje de literatura y cine.

### Euskararen presentzia bidaia-poltsen bidez lagundutako proiektuetan

### Presencia del euskera en proyectos subvencionados mediante bolsas de viaje

	<b>Euskarazko proiektuetarako eskatutako dirulaguntzak Ayudas solicitadas para proyectos en euskera</b>	<b>Euskarazko proiektuetarako emandako dirulaguntzak Ayudas otorgadas para proyectos en euskera</b>	<b>Euskarazko proiektuen estaldura maila Nivel de cobertura de proyectos en euskera</b>
2023	29	27	% 93
2022	18	16	% 89
2021	3	3	% 100

**Bidaia-poltzen bidez lagundutako joan-etorrien  
banaketa geografikoa**

**Distribución geográfica de los desplazamientos  
subvencionados mediante bolsas de viaje**

Estatua	Frantzia	Europa	Ipar Amerika	Hego Amerika, Ertamerika eta Karibe	Asia eta Ozeania	Afrika
Estado	Francia	Europa	Norteamérica	Sudamérica, Centroamérica y Caribe	Asia y Oceanía	África
2023	18	0	5	2	7	0
2022	16	0	4	0	3	0
2021	13	0	1	0	0	4



**Mariasun Landa eta Fito Rodriguez idazleek, Aritz Galarraga editorearekin batera, euskal literatura garaikidea aurkeztu dute Valentziako Liburu Azokan.**

Los escritores Mariasun Landa y Fito Rodriguez, junto con el editor Aritz Galarraga, han presentado la literatura vasca contemporánea en la Fira del Libre de Valencia.

Argazkia: Fira del Llibre de Valencia.

# Literatura lanen itzulpenak sustatzea

Euskal literatura nazioartean ezagutzen emateko zubi dira itzulpenak, horregatik sustatzen dugu itzulpengintza.

# Fomento de la traducción de obras literarias

El fomento de la traducción tiene como fin facilitar los medios para que la literatura vasca pueda tener difusión en el ámbito internacional.



**Etxepare - LABORAL Kutxa Itzulpen Sariaren irabazlea Amaia Gabantxo izan da. Miren Agur Meaberren 'Hezurren erretura' itzuli du inglesera.**

Amaia Gabantxo se ha alzado con el Premio Etxepare - LABORAL Kutxa de Traducción, gracias a la traducción al inglés de la novela 'Hezurren erretura', escrita por Miren Agur Meabe.

Argazkia: Etxepare Euskal Institutua

## Itzulpengintza sustatzeko jarduerak

Urtean zehar, itzulpengintza sustatu eta itzulpenen garrantzia balioan jartzeko hainbat ekintza burutu edo lagundu ditugu.

### **Basque Writing 27 eta 28 argitalpenaren itzulpena**

Euskal PEN Klubak urtero argitaratzen duen Basque Writing aldizkaria ingelesera itzultzen lagundu du Etxepare Euskal Institutuak.

### **Etxepare - Laboral Kutxa Itzulpen Saria**

2023.10.05

2015. urtetik, euskaraz idatzitako literatura lan baten itzulpena aitortzen du sari honek. Sariaren irabazlea aukeratzerakoan itzulpenaren kalitatea eta argitaletxearen promozio plana hartzen dira aintzakotzat. 2023. urteko saritua Amaia Gabantxo izan da, Miren Agur Meaberren ‘Hezurren erretura’ (‘Burning Bones’) eleberria ingelesera itzultzeagatik. Parthian Books argitaletxeak plazaratu du liburua.

### **The Riveter. ‘Basque spotlight’**

2023.04

The Riveter literatura aldizkariaren apirileko aleak euskal literatura garaikideari atal bat eskaini dio ‘Basque Spotlight’ izenburuean.

### **Euskal literatura laginen ataria - Basquebooks**

Jatorriz euskaraz idatzitako lanen itzulpena eta argitalpena sustatzeko helburuz euskal literatura-laginen ataria sortu dugu. Bertan, oraindik ingelesera edo frantsesera itzuli ez diren euskarazko literatura-lanen pasarte edo zatiak eskaintzen dira. Batetik, literatura-laginen itzulpenerako laguntzen deialdiaren bitartez itzuli diren testuak daude bertan. Bestetik, 2021az geroztik Euskadi Saria jaso duten euskarazko lan guztiengabe edota frantseseko laginak. Ataria [www.basquebooks.eus](http://www.basquebooks.eus) webgunean kokatuta dago, liburugintzaren sektoreak eta euskal erakundeek euskal literatura eta liburuengako kanpo zabalkunderako erabiltzen duten marka. Horrekin batera, EIZIEk (Euskal Itzultzai, Zuzentzaile eta Interpreteneen Elkarte) berriki Etxepareren laguntzarekin ingelesera itzuli dituen hainbat baliabide ere aurki daitezke bertan.

## Actividades para fomentar la traducción

Con el fin de promover y poner en valor la traducción, hemos llevado a cabo o apoyado diversas iniciativas.

### **Traducción de Basque Writing 27 y 28**

Etxepare Euskal Institutu ha posibilitado la traducción al inglés de la revista Basque Writing que anualmente publica Euskal PEN Kluba.

### **Premio de Traducción Etxepare - Laboral Kutxa**

05.10.2023

Desde 2015, este premio es un reconocimiento público a la traducción de una obra literaria escrita originalmente en euskera. A la hora de otorgar el galardón se valora la calidad de la traducción, así como el plan de promoción de la editorial. La traductora premiada en 2023 ha sido Amaia Gabantxo por la traducción al inglés de ‘Hezurren erretura’ (‘Burning Bones’), de Miren Agur Meabe. La traducción ha sido publicada por la editorial Parthian Books.

### **The Riveter. ‘Basque spotlight’**

04.2023

La revista literaria The Riveter ha dedicado un apartado de su número de abril a la literatura vasca contemporánea bajo el título ‘Basque Spotlight’.

### **Portal de muestras de literatura en euskera - Basquebooks**

Hemos creado un portal de muestras de literatura en euskera para impulsar la traducción y publicación de obras escritas originalmente en esta lengua. El portal ofrece un número significativo de fragmentos traducidos al inglés o francés de títulos en euskera que aún no han sido publicados en estas lenguas. Se incluyen textos que han pasado por la convocatoria de ayudas a la traducción de muestras literarias y todas las obras en euskera galardonadas con el Premio Euskadi desde 2021. El portal está ubicado en la web de [www.basquebooks.eus](http://www.basquebooks.eus), marca que sector editorial e instituciones vascas comparten para la proyección exterior de la literatura y el libro vasco. Ofrece, además, toda una serie de recursos orientados a la traducción que ha desarrollado EIZIE (Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes de Lengua Vasca) y que han sido traducidos al inglés con ayuda de Etxepare.

## Literatura lanen itzulpenak egiteko dirulaguntzak

Etxepare Euskal Institutua jatorriz euskaraz idatzitako lanen itzulpenak laguntzen ditu diruz, baita gaztelaniaz idatzitako lanenak ere, idazle horiek EAEn erroldatutakoak badira.

## Subvenciones para la traducción de obras literarias

Etxepare Euskal institutua subvenciona la traducción de obras originalmente escritas en euskera, así como de obras en castellano escritas por autores/as de la CAV a otras lenguas.

### Literatura itzulpenak egiteko dirulaguntzak

### Subvenciones para la traducción de obras literarias

	<b>Eskatutako dirulaguntzak</b>	<b>Emandako dirulaguntzak</b>	<b>Eskatutako zenbateko</b>	<b>Emandako zenbatekoa</b>	<b>Aurrekontua</b>
	<b>Ayudas solicitadas</b>	<b>Ayudas otorgadas</b>	<b>Importe solicitado</b>	<b>Importe otorgado</b>	<b>Presupuesto</b>
2023	27	23	43.588,75 €	33.209,75 €	63.000 €
2022	23	17	45.534 €	34.237 €	63.000 €
2021	26	21	54.965 €	47.612€	64.000 €

### Euskarazko lanak

### Obras en euskera

	<b>Jatorrizko hizkuntza euskara duten lanentzako eskatutako dirulaguntzak</b>	<b>Jatorrizko hizkuntza euskara duten lanentzako emandako dirulaguntzak</b>	<b>Euskarazko projektuen estaldura maila</b>
	<b>Ayudas solicitadas para proyectos en euskera</b>	<b>Ayudas concedidas para proyectos en euskera</b>	<b>Nivel de cobertura a proyectos en euskera</b>
2023	17	16	% 94
2022	18	12	% 67
2021	25	20	% 80

**Lanaren jatorrizko hizkuntza**

**Lengua original de la obra**

	<b>Euskara Euskera</b>	<b>Gaztelania Castellano</b>
2023	16	7
2022	12	5
2021	20	1

**Itzulpena egiteko erabilitako hizkuntza**

**Lengua de partida de la traducción**

	<b>Euskara Euskera</b>	<b>Gaztelania Castellano</b>	<b>Beste hizkuntza bat Otra lengua</b>
2023	10	12	1
2022	8	9	0
2021	9	9	3

**Itzulpenaren xede hizkuntza**

**Lengua de destino de la traducción**

	<b>Gaztelania Castellano</b>	<b>Ingelesa Inglés</b>	<b>Beste hizkuntza bat Otra lengua</b>
2023	1	0	22
2022	3	1	13
2021	5	2	14

## Literatura eta itzulpengintza alorreko proiektuak

## Proyectos de literatura y traducción

### Proiektuaren izaera

### Naturaleza del proyecto

Nazioarteko egitasmoak euskal erakunde eta eragileekin	Nazioarteko egitasmoak kanpoko erakunde eta eragileekin
Proyectos internacionales con entidades y agentes culturales vascos	Proyectos internacionales con entidades y agentes culturales extranjeros

2023 7 15

### Proiektuen banaketa geografikoa\*

### Distribución geográfica de proyectos\*

Estatua	Frantzia	Europa	Ipar Amerika	Hego Amerika, Ertamerika eta Karibe	Asia eta Ozeania	Afrika
Estado	Francia	Europa	Norteamérica	Sudamérica, Centroamérica y Caribe	Asia y Oceanía	África
2023	6	0	9	5	1	1

2023 6 0 9 5 1 1

### Burututako jarduera kopurua\*

### Número de actividades llevadas a cabo\*

2023	43
2022	35
2021	42

\*Oharra: proiektu batzuk herrialde bat baino gehiagotan gauzatu dira eta horien baitan jarduera bat baino gehiago burutu da.

\*Nota: algunos proyectos se han llevado a cabo en más de un país y han generado más de una actividad.

03

# Arte eszenikoak



Argazkia: Osa + Mujika

# Arte eszenikoak

Artes escénicas

Euskal arte eszenikoei nazioarteko proiekzioa sustatzea da Etxepare Euskal Institutuaren helburuetako bat. Horretarako, Euskal Herriko dantza eta antzerki konpainiei mugikortasuneko dirulaguntzak emateaz gain, bertako eta kanpoko erakundeen arteko lankidetza bultzatzen dugu eta programazio garrantzitsuetan euskal sorkuntzentzako erakusleihoa irekitzen ditugu. Era berean, nazioarteko azoka eta topaguneetan euskal eszenaren presentzia sustatzen dugu, BASQUE. PERFORMING ARTS. markaren bidez, Eusko Jaurlaritzarekin eta dantza, antzerkia edo zirkuko sektorearekin elkarlanean.

Uno de los objetivos de Etxepare Euskal Institutua es impulsar la proyección internacional de las artes escénicas vascas. Para ello, además ofrecer ayudas a la movilidad para compañías de danza y teatro del País Vasco, fomentamos la colaboración entre instituciones locales y del exterior, y abrimos espacios para creaciones vascas en programaciones destacadas. Asimismo, impulsamos la presencia de la escena vasca en ferias y encuentros internacionales a través de la marca BASQUE. PERFORMING ARTS., en colaboración con el Gobierno Vasco y el sector danza, el teatro y el circo.

## Sortzaileen eta lanen zabalkundea sustatzea

Euskal sortzaileen eta lanen ikusgarritasuna sustatzeko Etxepare Euskal Institutuaren ildoetako bat da euskaren eremu geografikotik kanpo arte eszenikoetako proposamenen erakustaldiak bultzatzea. Helburu horrekin hainbat erakunde eta jaialdirekin lankidetza hitzarmenak sinatu ditugu euren programazioetan euskal sorkuntzentzat espazioak bermatzeko. Era berean, euskal konpainiek dirulaguntzak jaso dituzte nazioarteko biretan eta antzerki denboraldietan parte hartzeko.

## Fomento de la difusión de creadores/as y obras

Etxepare Euskal Institutua apoya la exhibición de propuestas escénicas fuera del ámbito geográfico del euskera, con el fin de dar visibilidad a creadores/as y obras del País Vasco. Hemos suscrito diversos acuerdos de colaboración con festivales y otras entidades para garantizar espacios dedicados a creaciones vascas en sus programaciones. También, hemos concedido ayudas para que compañías vascas lleven a cabo giras internacionales y temporadas de teatro.




Tanttaka Teatroaren 'Sexberdinak' antzezlan  
Bogotako (Kolonbia) Julio Mario Santo Domingo

Antzokiko Euskal Leihoa ikusi ahal izan da.

La obra 'Sexpertos' de Tanttaka Teatro, se ha podido ver en la Ventana Vasca del Teatro Julio Mario Santo Domingo, Bogotá (Colombia).

Argazkia: Teatro Mayor Julio Mario Santo Domingo

## Euskal leihoa antzoki eta jaialdietan



### Le Parvis - Scène Nationale Tarbes Pyrenees

Tarbes, 2023.03.24-31

Martin Harriague eta Bilaka Kolektiboa, 'Gernika'  
Axut! & Artedrama, 'Hondamendia'  
Dantzan Bilaka, Orbel, Lumi

### Teatro Mayor Julio Mario Santo Domingo

Bogotá, 2023.04.25-29

Tanttaka Teatroa, 'Sexberdinak'  
+ 'Semea pixka bat moten dabil soilik'  
2023.08.22-26  
Kukai Dantza, 'Desde mi txoko' + 'Yarin'

### Maloba Festival

Brazzaville, 2023.05.01-03

Ertza, 'O Tempo Diz'

La glo circo, 'Ensueño'

### Festival Internacional de Teatro y Artes de Calle de Valladolid

Valladolid, 2022.05.24-28

Osa + Mujika, 'Bueltaxka'  
Harrobi Dantza Bertikala + Oreka TX, 'Dendu'  
El mono habitado, 'La buena letra'  
Zanguango, 'Paso a paso. (La mirada nómada)'

### Festival dos Canais

Aveiro, 2022.07.12-215

Maitane Serralde, 'Desanuda'  
Ganso & Cia, 'Panoli Kabareta'  
Eva Guerrero, 'Gorpuztu'  
Deabru Beltzak, 'Symfeuny'

## Ventanas vascas en teatros y festivales



### Veranos de la Villa

Madril, 2022.07.18-19

Kukai Dantza, 'Raquetistas'

### Fest'Arts

Libourne, 2022.08.03-04

Haatik, 'Ur'  
Orain Bi, 'Mute'

### Sziget Festival

Budapest, 2022.08.10-15

Deabru beltzak, 'Les tambeurs de feu'  
Ertza, 'O Tempo Diz'  
Hika Teatroa, 'Gazte'

### Fira Mediterrània

Manresa, 2022.10.07-08

Bilaka Kolektiboa, 'Besaide'  
Aukeran Dantza Konpainia, 'Aiurri'

### Fira Tàrrega

Tarrega, 2023.10.07-10

La Dramática Errante, 'Altsasu'  
Lökke, 'Dopplegänger'

### Ecole de Danse de Quebec QUÉBEC-PAYS BASQUE

Montreal, 2023.10.16-12.06

Amaia Elizaran

## Nazioarteko foroetan parte hartzea

Etxepare Euskal Institutua ADDE (Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartea) eta Dantzaz Konpainiarenkin sinatutako hitzarmenen bidez, eragile hauek nazioarteko hainbat forotan hartu dute parte euskal koreografoen lana sustatu eta hedatzeko. Halaber, ADDEk argitaratzen duen Euskal Herriko Dantza Lanen Katalogoa berritzeko eta ingelesera eta francesera itzultzeko lagunza eman dugu nazioarteko topaketetan erabili dadin.

## Participación en foros internacionales

Etxepare Euskal Institutua ha firmado sendos convenios con ADDE (Asociación de Profesionales de la Danza del País Vasco) y Dantzaz Konpainia para que participen en foros internacionales con el fin de promover y difundir a nivel internacional el trabajo de coreógrafos/as vascos/as. Asimismo, hemos concedido una ayuda para renovar y traducir al inglés y al francés el Catálogo de Obras Vascas de Danza que publica ADDE para su utilización en encuentros internacionales.



**Lökke-k 'Doppelgänger' lana eraman du Fira Tarregara.**

Lökke ha llevado la obra 'Doppelgänger' a la Fira Tàrrega.

Argazkia: Fira Tàrrega.

**Arte eszenikoen alorreko proiektuak****Proyectos del área de artes escénicas****Proiektuaren izaera****Naturaleza del proyecto**

Nazioarteko egitasmoak euskal erakunde eta eragileekin	Nazioarteko egitasmoak kanpoko erakunde eta eragileekin
<b>Proyectos internacionales con entidades y agentes culturales vascos</b>	<b>Proyectos internacionales con entidades y agentes culturales extranjeros</b>
2023 2	11

**Proiektuen banaketa geografikoa\*****Distribución geográfica de proyectos\***

Estatua	Frantzia	Europa	Ipar Amerika	Hego Amerika, Ertamerika eta Karibe	Asia eta Ozeania	Afrika
Estado	Francia	Europa	Norteamérica	Sudamérica, Centroamérica y Caribe	Asia y Oceanía	África
2023 6	2	2	1	1	0	1

**Proiektuaren baitan sustatzen den lanaren hizkuntza****Lengua de la obra promocionada en el proyecto**

Euskara Euskera	Gaztelania Castellano	Eleanitza (Euskara+beste hizkuntza bat) Plurilingüe (Euskera+otra lengua)	Beste hizkuntza bat Otra lengua	Hitzik ez Sin texto
2023 0	0	13	2	0

**Burututako jarduera kopurua\*****Número de actividades llevadas a cabo\***

2023 18
2022 25
2021 22

\*Oharra: proiektu batzuk herrialde bat baino gehiagotan gauzatu dira eta horien baitan jarduera bat baino gehiago burutu da.

\*Nota: algunos proyectos se han llevado a cabo en más de un país y han generado más de una actividad.

## Mugikortasunerako dirulaguntzak: antzerki birak eta denboraldiak

Etxepare Euskal Institutua urtero dirulaguntzak ematen ditu euskal konpainiek euskararen eremutik kanpo antzerki denboraldiak eta birak egin ditzaten.

## Subvenciones para la movilidad: giras y temporadas de teatro

Etxepare Euskal Institutua ofrece ayudas anualmente para que compañías de teatro vascas puedan realizar giras y temporadas teatrales fuera del ámbito geográfico del euskera.

Eskatutako dirulaguntzak	Eemandako dirulaguntzak	Eskatutako zenbatekoa	Eemandako zenbatekoa	Aurrekontua
Ayudas solicitadas	Ayudas otorgadas	Importe solicitado	Importe otorgado	Presupuesto
2023 54	46	252.438 €	164.297 €	148.000 €
2022 80	57	207.290 €	159.744 €	136.000 €
2021 52	42	145.102 €	128.345 €	132.000 €

### Euskarazko antzezlanak

### Obras en euskera

Jatorrizko hizkuntza euskara duten antzezlanentzat eskatutako dirulaguntzak	Jatorrizko hizkuntza euskara duten antzezlanentzat emandako dirulaguntzak	Euskarazko antzezlanen estaldura maila
Ayudas solicitadas para obras originales en euskera	Ayudas concedidas para obras originales en euskera	Nivel de cobertura de obras en euskera
2023 20	17	% 85
2022 37	36	% 98
2021 14	14	% 100

### Jatorrizko lanaren hizkuntza

### Lengua original de la obra

Euskara Euskera	Gaztelania Castellano	Eleanitza (Euskara+beste hizkuntza bat) Plurilingüe (Euskera+otra lengua)	Beste hizkuntza bat Otra lengua	Hitzik ez Sin texto
2023 15	17	0	1	13
2022 36	10	0	0	11
2021 14	13	18	0	0

**Diruz lagundutako antzerki bira eta denboraldien banaketa geografikoa\***      **Distribución geográfica de giras y temporadas de teatro subvencionadas\***

Estatua	Frantzia	Europa	Ipar Amerika	Hego Amerika, Ertamerika eta Karibe	Asia eta Ozeania	Afrika
Estado	Francia	Europa	Norteamérica	Sudamérica, Centroamérica y Caribe	Asia y Oceanía	África
2023	26	3	12	0	3	1
2022	44	2	7	0	4	0
2021	36	2	2	1	1	0

\*Oharra: jasotako eskaeretako batzuk birak herrialde batean baino gehiagotan egiteko izan dira.

\*Nota: algunas de las solicitudes recibidas han sido para realizar giras en más de un país.

**Emanaldi kopurua****Número de actuaciones**

2023	387
2022	310
2021	253

## Mugikortasunerako dirulaguntzak: dantza birak eta denboraldiak

Etxepare Euskal Institutua urtero dirulaguntzak ematen ditu Euskal Herriko dantza konpainiek euskararen eremu geografikotik kanpo dantza birak egin eta nazioarteko dantza programazioetan parte hartzeo.

## Subvenciones para la movilidad: giras y temporadas de danza

Etxepare Euskal Institutua ofrece subvenciones todos los años, con el fin de contribuir a que compañías de danza vascas puedan realizar giras y participar en programaciones fuera del ámbito geográfico del euskera.

Eskatutako dirulaguntzak	Emandako dirulaguntzak	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa	Aurrekontua
Ayudas solicitadas	Ayudas otorgadas	Importe solicitado	Importe otorgado	Presupuesto
2023 23	21	104.572 €	83.933 €	82.000 €
2022 33	27	101.427 €	77.062 €	81.000 €
2021 35	31	93.165 €	84.022 €	55.000 €

## Euskarazko ikuskizunak

## Obras en euskera

Euskarazko ekoizpenetarako eskatutako dirulaguntzak	Euskarazko ekoizpenetarako emandako dirulaguntzak	Euskarazko ekoizpenen estaldura maila
Ayudas solicitadas para proyectos en euskera	Ayudas concedidas para proyectos en euskera	Nivel de cobertura a proyectos en euskera
2023 7	7	% 100
2022 12	12	% 100
2021 12	12	% 100

**Diruz lagundutako dantza bira eta denboraldien banaketa geografikoa\*****Distribución geográfica de giras y temporadas de danza subvencionadas\***

	Estatua	Frantzia	Europa	Ipar Amerika	Hego Amerika, Ertamerika eta Karibe	Asia eta Ozeania	Afrika
	Estado	Francia	Europa	Norteamérica	Sudamérica, Centroamérica y Caribe	Asia y Oceanía	África
2023	8	1	9	2	0	0	1
2022	13	4	9	0	0	0	1
2021	14	4	8	0	1	0	1

\*Oharra: jasotako eskaeretako batzuk birak herrialde batean baino gehiagotan egiteko izan dira.

\*Nota: algunas de las solicitudes recibidas han sido para realizar giras en más de un país.

**Emanaldi kopurua****Número de actuaciones**

2023	200
2022	149
2021	146

# ミ | 04 バチと私

20,000 species of bees 

# Zinema eta ikus- entzunezkoak

生まれ変わったら、女の子になれるかな？

## CINE Y AUDIOVISUALES

Argazkia: '20.000 especies de abejas'



第73回 ベルリン国際映画祭銀熊賞

<sup>34</sup>史上最年少の8歳で最優秀主演俳優賞受賞!

# Zinema eta ikus-entzunezkoak

Cine y audiovisuales

